



Greba orokorra Hego Euskal Herrian



EHUn greba erabatekoa izan zen sindikatuen arabera.

Sare publikoan eta ikastoletan greba ia erabatekoa izan zen

I.M. / DONOSTIA

Greba orokorrak eragin oso handia izan zuen atzo Hego Euskal Herriko irakaskuntzan. Iturri sindikalek Euskal Autonomi Elkarteko irakaskuntzan greba ia erabatekoa izan zela zioten bitartean, Hezkuntza Sailaren arabera % 60k egin zuten greba.

Nafarroan, ikastola guztiek eta irakaskuntza publikoko % 70ek egin zuten greba LABen arabera. Nafarroako sare pribatuan eragina txikia izan zen oso. LABek emandako datuen arabera, Baztan, Leiza-Larraun eta Sakanako ikastetxe guztiek greba egin zuten.

Ikastola ia guztiak greba egin zuten atzo hainbat iturrik adierazi zuten. ELAren arabera, Gipuzkoa eta Arabako ikastola guztiak itxi zuten atzo, eta Bizkaian hiru ikastoletan ez (Begoñazpi, Artxandape eta Kirikiño) beste guztietan irakasle guztiek egin zuten greba. Nafarroan ere ikastola guztiak sostengatu zuten greba deialdia LABen arabera. Euskal Autonomi Elkarteko Hezkuntza Sailak, ikastolen %

85ek egin zutela greba adierazi zuen.

Irakaskuntza publiko ez unibertsitarioan, erabatekoa izan zen grebaren eragina Gipuzkoan, % 80koa Bizkaian (zentru guztietan izan zuen eragina hala ere) eta % 85ekoa Araban, ELAk emandako datuen arabera. Sare pribatuko zenbait zentru txiki zabalik egon ziren EAEko hiru herrialdeetan, baina nagusienak —iturri sindikalen arabera— itxita egon ziren. EAEko Hezkuntza Sailaren arabera, irakaskuntza publikoan % 69,3k egin zuten greba, eta % 29,5ek sare pribatuan.

Euskal Herriko Unibertsitatean greba erabatekoa izan zen. Deustuko Unibertsitatean, aldiz, lana «normaltasun osoz» egiten ari zirela adierazi zioten EGUNKARIARI bertako iturriek. Nafarroako unibertsitate pribatuan ere grebak ez zuen eraginik izan, baina NUPen (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) talde batek (kopurua zehaztu gabe) batzarra egin eta greba egitea erabaki zuela ezagutarazi zuten bertako iturriek.

Datu kontrajarriak osasun arloan grebak izandako eraginari buruz

DONOSTIA

Osasun arloan greba deialdiak izandako erantzunari buruz datu oso kontrajarriak eman zituzten sindikatuek eta administrazioak. CCOOen arabera, Euskal Autonomi Elkarteko osasun arloan lanuztea % 90etik gorakoa izan zen. Osakidetza iturrien arabera, ordea, EAEko osasun arloko langileen % 22,64ek baino ez zuten greba egin. Nafarroan, osasungintzako langileen % 30ak ez zuen lanik egin ELAren arabera. Sindikatu honek adierazi zuenez, ordea, Nafarroako zein EAEko datuak ulertzeko kontutan hartu behar da osasun arloan gutxienezko zerbitzuak oso gogorrek direla eta bete egin zirela guztiak.

Greba deialdiak Gipuzkoa eta Araban jaso zuen erantzunik zabalena. Iturri ofizialen arabera, % 35ekoa izan zen greba oinarritzko zainketen arloan, eta % 25 ingurukoa ospitaletan. Bizkaian, iturri horien arabera, grebaren eragina apalagoa izan zen. Gipuzkoako osasun arloko zenbait arlotan % 50era ere heldu zen greba, baina ospitaletan % 25ekoa izan zen, batezbeste, Araban bezala.

Bizkaian, Galdakaoko ospitaletan % 30ek egin zuten greba, eta Basurtukoan % 34ek, Gurutzetan % 11,9k, beti ere iturri ofizialek adierazi zuten. Iturri sindikalen arabera, Galdakaon % 70ek ez zuten lanik egin, eta Gurutzetan % 40 inguru izan zen greba egin zuena.

**Bihartik aurrera,
18tik 30 urtera bitarteko gazte
guztiek, kotxea, etxebizitza,
negozioa,
ikasketa unibertsitarioak ...
eduki ahal izango dituzte.**

